



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 87. INFORMAZIO BULETINA

2014ko Martxo



GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > **Gipuzkoako Aldundiak langileen parte hartzearen europar politiken diseinuan parte hartuko du**


Gipuzkoako Foru Aldundiak, Berrikuntza Departamentuaren bitartez, beste gizarte eta ekonomia eragile batzuekin batera, programa pilotuaren diseinuan parte hartuko du. Programa hau oinarri gisa erabiliko da enpresetako langileen parte hartzea sustatzen duten europar politikak marrazteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lan egiten duen taldea, Europar Batasunak aukeratu zuen hainbat proposamenen artean. Europar Batzordeak, Gipuzkoako Aldundia dagoen taldearen esperientzia baloratu zuen, aurretik *think tank* bat osatzen zuen taldea; aditu talde bat, Europar Batasunaren finantzazioarekin lan egin zuena demokrazia ekonomikoaren eremuan esperientziak elkarbanatzeko, eta iaz Donostian bildu zirenak.

*“Proiektu pilotuaren abiaraztea: langileen parte hartzearen sustapena kudeaketan eta kapitalean”* proiektuan, Aldundia da bertan dagoen administratza bakarra. Ikerketa elkarte eta erakunde alemaniarrek, frantsesek, belgikarrek eta hungariarrek laguntzen diote. Taldea, Jens Lowitzsch Viadrinako Unibertsitatearteko Zentroko zuzendariak koordinatzen du, zeinarekin Aldundiko Berrikuntza saila aspalditik lanean dabilen.

Informazio gehiago:

[http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/1315/diputacion-gipuzkoa-colaborara-dise%C3%B1o-politicas-europeas-participacion-y-trabajadores&anti\\_cache=1396853005607](http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/1315/diputacion-gipuzkoa-colaborara-dise%C3%B1o-politicas-europeas-participacion-y-trabajadores&anti_cache=1396853005607)



### > **Gipuzkoako udalerrriak beste eskualde edo herrialdeetako udalerriekin batzeko ELKARREKIN Programaren deialdi berria**

ELKARREKIN programak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kanpo Harremanen eta Turismoaren Zuzendaritza Nagusiak bultzatuta, Gipuzkoako udalerrriak animatu eta babestu nahi ditu Gipuzkoako udalerrietako interes sozialak, kulturalak eta ekonomikoak babesten dituzten jarduerak egitera. Gainera, loturak edo interes komunak dituzten beste eskualde edota herrialdeetako udalerrri eta hiriekin harremanak estutu nahi dituzte.

Udalerrrien eta hirien batura sustatzeko eta herri eta eskualdeen arteko ahaidetasunak estutzeko pentsatutako ekimena da, ez Europakoak soilik, baizik eta ikuspegi orokorrarekin planteatuta, hirien ahaidetasunaren politika komunitarioarekin batera.

2014ko martxoaren 31n ELKARREKIN programaren deialdiaren oinarriak argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2014. urterako. Eskeraur aurkezteko epea 2014ko apirilaren 30ean amaituko da.

*Informazio gehiago:*

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/03/31/e1402931.htm>

<http://www.kanpoharremanak.net/jarduerak.php?op=8>



### > Zabalik da euskal gazteei Europa gerturatzeko “*Non ikusten duzu Europa Euskadin?*” argazki-lehiaketaren edizio berria

Hirugarren urtez jarraian, Eusko Jaurlaritzak abian jarri du euskal gazteei Europa gerturaztea helburu duen argazki-lehiaketa. Argazkietan Europak hurbileko ingurua garatzen lagundu duen moduari buruz gazteek duten ikuspegia islatzera animatu nahi da.

*Non ikusten duzu Europa Euskadin?* izenburupean, Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak sustatutako ekimena Facebook-en duen plataformaren bidez garatzen da. Parte hartu nahi duten gazteek argazkiak jarri eta Europari buruz duten ikuspegia partekatu ahal izango dute sormena erabilita. Gainera, lehiaketako beste partaideen argazkiei iruzkinak eta balorazioa egiteko aukera ere izango dute.

Lehiaketa 14-25 urteko gazteentzako da eta izena emateko epea 2014ko apirilaren 27an amaituko da. Bi argazkirik onenek Bruselara bidaiara bi pertsonentzako eta iPhone bat jasoko dute. Web guneko zaleek gehien bozkatzeko duen argazkia osterara, BBK Liverako edo Azkena Rock Jaialdirako edo Heineken Jazzaldirako sarrera birekin sarituko da.

*Informazio gehiago:*

<https://www.facebook.com/feder.ejgv>



## KOHESIO-POLITIKA

### > POCTEFaren aurrekontuak %12 egin du gora eta lehentasun estrategikoak ezarri ditu 2014-2020 aldi berriari begira

Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa Eragilearen Kudeaketa Agintaritzak POCTEFA 2007-2013, duela hilabete batzuetatik hona 2014-2020 Programa Operatiboa idazten lan egiten du Europa Estrategia 2020ren ildotik, hazkunde adimentsua, iraunkorra eta bateratzailea sustatzeko.

Horri dagokionez, Eskualdeko Garapeneko Europako Funtzaren –FEDER- bidez egindako Europar Batasunaren ekarpena, Lurraldeko Lankidetzaren Programa Eragileari Espainia-Frantzia-Andorra POCTEFA 2014-2020ri esleituko zaiona, 189,5 milioi eurokoa izango da. Hori dela eta, % 12 baino gehiagoko igoera izan du aurreko aldiarekin alderatuta.

Proiektuak biltzen dituzten POCTEFAk kudeatutako FEDER funtsak finantzazioaren % 65 dira. Hori dela eta, 189,5 milioi euroko aurrekontua izatetik lurraldean proiektuen guztizko inbertsioa 274 milioi eurokoa izatera igaroko da. Herrialdeka, Programa berrirako Frantziaren esleipena 92,6 milioi eurokoa da, aurreko programan baino ia % 20,5 gehiago. Espainiako zatia 96,9 milioi eurotara iristen da POCTEFaren edizio berrian, hau da % 6,25eko igoera izango du

Aurrekontu-ahalegin handienak egingo diren inbertsioko lehentasun estrategikoak hauek dira: eskualdeko garapen ekonomikoa I+G+b-n inbertsioak egindako sustapenaren bidez (aurrekontuaren % 21) eta ondare naturalaren babesa eta zaintza (% 29) aldaketa klimatikoaren egokitzapenean eta eraginen arriskuak saihesten interes berezia ipiniz (% 16). Ingurumenarekiko errespetua mantentzen duten sistemen aldeko apustuak (% 14) ere zeresana izango du aldi berrian, baita azpiegitura sozialetako eta osasun-azpiegiturretako inbertsioak (% 8), enplegu iraunkorraren sustapenak eta laneko mugikortasunak (% 7) eta ETE-entzako enpresa-eredu berrien garapenak eta aplikazioak ere (% 5).

*Informazio gehiago:*

<http://www.poctefa.eu>



### > Europako Batzordeak 2014. urterako aukera-berdintasuneko helburuak lortu ditu

Joan den martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunaren ospakizuna zela eta, Europako Batzordeak Europan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren aurrerapenaren emaitzak aurkeztu zituen eta Aukera Berdintasunaren Estrategiak 2010-2014 ezarritako helburuak bete zirela iragarri zuen aurrez ikusitakoa baino 11 hilabete lehenago.

Aukera Berdintasunen Estrategia 2010-2014k 2014ko abenduaren 31rako helburuak ezartzen ditu emakumeek ordezkari gaxien duen hiru alorretan: % 25 goi mailako zuzendaritzako karguak, % 30 bitarteko kudeaketa-postuak eta % 43 kudeaketa-erantzukizunik gabeko administrari postuak.

Argi geratu da hiru helburuak 2014ko otsailaren 1ean lortu zirela: emakumeak daude goi mailako zuzendaritzako karguen % 27,9tan, bitarteko kudeaketa-postuen % 30,3an eta kudeaketa-erantzukizunik gabeko administrazio-enpleguen % 43,2tan. Ehuneko horiek erakutsi dute kopuruek nabarmen hobera egin dutela 1995ekin alderatuta. Izan ere, urte horretan, goi mailako zuzendaritza karguen % 4 soilik, bitarteko kudeaketa-postuen %10,7 eta kudeaketa-erantzukizunik gabeko administrazio-enpleguen % 23,9 soilik egiten zituzten emakumeek.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/civil\\_service/docs/equal\\_opp/strategie\\_1554\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/civil_service/docs/equal_opp/strategie_1554_en.pdf)





### > **Espanian Europako Kohesio Politikaren 2014-2020 aldi berrirako Elkartzeko Akordioaren zirriborroa kontsulta publikorako eskuragarri**

Elkartzeko Akordioa Estatu kide bakoitzak egindako dokumentua da, bazkideen printzipioa eta maila anitzeko gobernantzaren printzipioa errespetatuz. Horrek Europako Funtsak (FEDER, FSE, FEADER eta FEMP) modu eraginkorrean erabiltzeko eta hazkunde adimentsua, iraunkorra eta bateratzailea lortzeko Europar Batasunaren helburuak lortzeko estrategia, lehentasunak eta neurriak azaltzen ditu. Elkartzeko Akordioa 2014-2020 Batzordeak onartuko du ebaluatu ostean eta Estatu kidearekin elkarriketatu ostean.

Joan den martxoaren 21ean 2014-2020 aldi berrirako Europako Batzordearekin Espainiako Elkartzeko Akordioaren zirriborroa aurkeztu ostean, informazio publikoko prozesu bati ekin zaio, eta bertan, parte hartutako eragile guztiak parte hartzera gonbidatzen dira.

*Informazio gehiago:*

<http://www.dgfc.sgpg.meh.es/sitios/dgfc/es-ES/Paginas/ConsultaPublica.aspx>



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > Kataluniak, Akitaniak eta Skanek beraien Espezializazio Adimentsuko Estrategiak aurkeztu dituzte

Martxoaren erdialdera, Kataluniak, Skånek (Suedia) eta Akitaniak Bruselan hartu dute parte jardunaldi batean. Bertan, bakoitzak bere esperientzia elkarbanatu du Espezializazio Adimentsuko Estrategiekin (RIS3) lotuta; definizioa, prozesu metodologikoa, emaitzak eta aurrerapen maila.

Jardunaldiaren helburua, hazkunderako eta berrikuntzarako estrategia hauek 2014-2020an Europaren eta, zehatzago esanda, Europako eskualdeen oparotasuna nola bultzatu dezaketen jakiteaz gain, aukeratutako hiru eskualdeetako esperientzia beste eskualdeentzako inspirazio-eredu izatea ere bada, Espezializazio Adimentsuko Estrategiak sortu dituzten moduaren arabera.

Eskualdeko funtsak ikerketan eta berrikuntzan inbertitu baino lehen, eskualdeek Espezializazio Adimentsuko Estrategiak (RIS3) izenekoak egin behar dituzte. Estrategia horiek ikuspegi estrategikoa ematen dute garapen ekonomikorako ikerketara eta berrikuntzara zuzendutako laguntza zehatzaren bidez. Eskualde bakoitzak abantaila lehiakorra duten lehentasunezko eremuen multzo mugatuan oinarritu beharko du.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/newsroom/detail.cfm?LAN=es&id=1332&lang=es](http://ec.europa.eu/regional_policy/newsroom/detail.cfm?LAN=es&id=1332&lang=es)





### > Europako erakundeek aitortu dute Euskadiko Lanbide Heziketako eredu Europarako erreferentea dela.

Euskadi Europako Ikaskuntzaren Aliantzaren kide izango den Europako lehen eskualdea da. Europar Batzordearen ekimen garrantzitsua da, Europako Estrategia 2020ren testuinguruan kokatuta, eta horren helburua enpresen, eragile sozialen eta erakundeen lan bateratua bultzatzea da lanbide heziketa eta ikaskuntza sustatzeko.

Ikaskuntzaren Europako Aliantza badaki ikaskuntzak eta prestakuntzak hezkuntzatik lan-mundurako bidea errazten duela eta enplegarritasuna sustatzen duela. Lanbide Heziketako eta Ikaskuntzako sistema sendoa duten herrialdeek langabezia maila txikiagoa dute herritar gazteen artean. Ikaskuntzaren eskaintzaren kalitatea sustatzea, gazteen enplegarritasuna sustatzea eta eskaintzaren eta enplegu-eskaeraren arteko aldea murriztea da helburuetako bat.

Euskadi Ikaskuntzaren Europako Aliantzako kide gisa onartzea Europako erakundeek Euskadiko Lanbide Heziketako ereduari egindako onarpenera da. Beste hainbat gauzaren artean, oso interesgarria da LHko ikastetxeen eta Euskadiko enpresen arteko eta garatzen ari den ikastetxeen antolaketa-ereduaren arteko lotura estua. Erakunde malguak eta eraginkorrak dira, enpresek eta enpleguak eskatzen duten aldaketen aurrean erantzuna emateko gaitasuna dutenak.

Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiak eta Enplegu, Gizarte Gai eta Gizarteratzearen Zuzendaritza Nagusiak koordinatuta, Ikaskuntzaren Europako Aliantza osatzen dute enpresa-sareek, Merkataritza Ganberek eta prestakuntza edo enplegu alorreko Europako plataformek.

*Informazio gehiago:*

<http://www.ikasmina.net/actualidadDetalle.php?actualidad=757&lang=es>

[http://ec.europa.eu/education/policy/vocational-policy/alliance\\_en.htm](http://ec.europa.eu/education/policy/vocational-policy/alliance_en.htm)



### > RegioStars 2014: eman dituzte Europako eskualdeko proiekturik berritzaileenentzako sariak

Eskualdeen Batzordeak Europako eskualdeko proiekturik berritzaileenak eta onenak aitortzen dituen RegioStars Sarien irabazleak iragarri ditu.

Guztira 80 proiektu aurkeztu dira eta epaileak, sariketaren azken fasean, 19 finalista aukeratu ditu. Horien artetik, lau proiektu irabazleak aukeratu dituzte sariaren lau irizpide garrantzitsuren arabera: berrikuntza, eragina, iraunkortasuna eta garapenerako erakusten duten laguntza maila.

Horrekin guztiarekin, 2014an, proiektu irabazleak hauek izan dira:

- 1. kategoria: Hazkunde adimentsua: *Art on Chairs* (Portugal-Iparra)
- 2. kategoria: Hazkunde iraunkorra: *BEACON* (Mendebaldeko Gales eta Haranen Eskualdea, Erresuma Batua)
- 3. kategoria: Hazkunde bateratzailea: *Fifteen Cornwall Apprenticeship Programme* (Cornualles eskualdea eta Scilly uharteak, Erresuma Batua)
- 4. kategoria: CityStar: *Garraio ekologikoa* (Gdynia eskualdea, Polonia)

Informazio gehiago:

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/projects/regiostars/regiostars\\_14\\_en.cfm](http://ec.europa.eu/regional_policy/projects/regiostars/regiostars_14_en.cfm)



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > **Eraikinen energia-berrikuntza 2014-2020 Kohesio-Politikaren funtsekin finantzatzeko gida**

2014-2020 aldian, kohesio-politika oso garrantzitsua izango da eraikinen birgaitzeko garaian; izan ere, gutxienez 23.000 milioi euro esleituko dira inbertsioetarako, karbono-igorpen gutxiko ekonomiara egindako aldaketaren lekuko, eta energia berriztagarrien erabilera eta eraikinetako energia-eraginkortasuna barne.

Gidak kudeaketa-agintariei jakinarazten die Europak zer eskakizun dituen eraikinetan eta energia-eraginkortasunean, gomendatutako praktiken eta azterketen ikuspegi zerranda bat eskaintzen du. Horrez gain, kudeaketa-agintariak energia iraunkorreko proiektuak babesteko erabil ditzaketen finantzaketa-bide desberdinak aztertzen ditu, betiere, eraikinen energia berrikuntzaren alorrean inbertsioak maila handiagoan egiteko helburuarekin eta sektore pribatuko inbertsio maila handiagoak erakartzeko nahiarekin.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/studies/pdf/financing\\_energy\\_renovation.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/financing_energy_renovation.pdf)



### > L'observation transfrontalière (Les Cahiers de la MOT. Mission Opérationnelle Transfrontalière)

MOT aldizkariaren, Mugaz gaindiko Operazio Misiorearen edizio berria. Bertan, gai nagusia mugaz gaindiko lurraldeen behaketa estatistikoko sistemen ingurukoa da. Sistema horiek martxan jartzeak eta horiek eguneratzeak ematen dituzten zailtasunak, eskaintzen dituzten aukerak eta abar dira aldizkarian argitaratutako artikuluek erantzun nahi dituzten gaiak.

Mugaz gaindiko behaketa estatistikoko sistemen eginbide egokien atal bat biltzen du, esate baterako, Frantziako eta Belgikako atlasa, Lilleko metropoli-eremuko estatistika-sistema eta Rhin Gainaren edo OreStat.en euroeskualdearena, Oresundeko (Danimarka-Suedia) eskualdean egindako tresna, beste batzuen artean.

Frantzian, DATARen (Délégation interministérielle à l'aménagement du territoire et à l'attractivité régionale) eskutik, Frantzian mugaz gaindiko eskualdeen sistema estatistikoaren garapenerako egiten ari diren ekimen pilotuaren aurrerapen-egoeraren deskribapena ere egin da.

*Informazio gehiago:*

[http://www.espaces-transfrontaliers.org/fileadmin/user\\_upload/documents/Documents\\_MOT/Cahiers/Cahiers\\_de\\_la\\_MOT\\_9\\_FR.pdf](http://www.espaces-transfrontaliers.org/fileadmin/user_upload/documents/Documents_MOT/Cahiers/Cahiers_de_la_MOT_9_FR.pdf)